



Pirineoak: Mediterraneotik Kantaurira

JUAN MARI JUARISTI

Dos amigos y un plan ambicioso para el mes de vacaciones: la travesía de los Pirineos desde el Mediterráneo (Port Bou) hasta el Cantábrico (Hondarribi). Este es el relato de sus expectativas y de sus experiencias.

Aspaldikan gurekin ditugun ohitura onei jarraituz, aurtengo neguan ere halako irteera politak agiteko aukera izan dugu. Gainera, hauetako batean erenatu zen gero uda garaian loratuko zen amets bikain bat.

Otsailaren asteburu bat, neguak dituen edertasunetaz solasaldian herriko txokoe-tan, eta halako batean plana: joango al gaituk Aitzgorriko babeslekura lotara, ados oso ondo, noiz? gaur iluntzean bertan. Honela geure morrala osatu eta lehen zatia kotxez egin ondoren, Arantzazutik gailurrera abiatu, frontalak lagun genituela ordu ederrak pasatzeko aukera. Hemen ezagutu nuen bidai laguna gertatuko zitzaidan Edorta Tolosarra, eta mendian, noski, beste gaien artean mendiaz hitzegiten da, honela, lehen urratsa emen genion udaran egin zitekeen zerbaite-ri, eta hau aspaldi batean pentsatua neukan ibilaldia zen: Pirineoak itsasotik itsasora zeharkatzea.

Galdera batzuk

Geroxeago beste elkar ikuste batzun ondoren ekainaren azken aldia ipini genuen abiatzeko egun bezala.

Nik egia esateko, plan honi mamia, ezezagun den haizearen deia aurkitzen nion. Neu-

re buruarekin galdera mordo bat baitnituen eta honek hain zuzen interesgarriago, erakargarriago bihurtzen zuen guztia.

Ibilaldia burutu genuen biok, neurri batean erdi ipurdiko mendizaleak ginan eta hainbeste egunetako mendi harremanetan ez genuen esperientziarik, gehienez aste bat segidan egonak mendian eta hortik hilabete luzera bai zegoen bai aldea, beraz hau zen lehenengo kezka: nola erantzungo ote digu gorputzak, indarrak iraungo ote digu behar hainbat, recuperaziorako ahalmena zer nolakoa izango ote dugu e.a. baina bestalde bagenuen gure baitan halako itxaropen baikor bat, gainditzearen usaina; behar bada gehiegizko neurrik gabea baina hor zegoena.

Hau genuen bigarren galdera: hilabetean gertakizun ugari sortu daiteke zalantzarik gabe (gure egoeran, hau da, gutxi ezagutzen ginan bi pertsona) tirabirei ere bere garrantzia eman behar zaie, izan ere nolabaiteko arriskua egon daiteke haserrearen inguruan, nahi ta nahi ez pertsonak izan di-



Euskal Herriko
Pirineoak, olatu
paketsu bezalakoak.

tazkeelako bere onetik irtetzeko arazoak, nekeak, goseak, nonbaiteko minak, nahigabeak bere tenpletik pertsona lasaiena ere, hain zuzen gauz guzti hoiek era honetako ibilaldi batean gertatzen diranak dira eta horregaitik kontuan har beharrekoak.

Zenbaitzuk gai hau gaintutua izango dute baina garbi dagoenez goi mailako espedizioetan ere, harreman pertsonalak izugarriko garrantzia dute helburua lortzerakoan. Beste baldintza bat gehiago denez, erantzuna eskatzen du.

Bideak ere nolabaiteko buruhaustea sortzen zizkigun. Pirineo erditik Hondarribi aldera gehiago edo gutxiago bagenuen bidearen berri, bestea ordea, Mediterraneotik Viella aldera guztiz ez ezaguna genuen, hau honela izateak zer ikusia izan zuen nondik norakoa aukeratzekoan.

Nahiz eta liburuak Kantauritik Mediterraneora osatua eduki arren bidea guk alderantziz jo genuen. Batetik eta gure ustez indarrez ondoena hasieran egongo ginanez, leku

ez ezagunetan pasa izateko balioko zigulakoan egokitzen jo genuen honela egitea eta bigarrenez (hau batez ere sikolojikoa) uste bezala gertatzen bazen, hau da, indarren ahuldadean aurkitu ezker helmugaren hurbiltasunak bultzada berria eskainiko zigulakoan geunden eta horrela egin ere.

Bizkarrean eraman beharreko zama zen beste kakoa, laguntzaile inor izan ezean norberak eraman behar ditu hilabeteen ezinbestean lagungarri izango zaizkion tresna guztiak. Neretzat atal hau klabea da, ezer falta ez dedila baina gramoak kontuz hartuaz, bestela damua da lehen reakzioa, bigarrena esfuerzo gehitua egitea, honek bere ondorio kaltegarriak ekar ditzakeelarik.

Istripuak ere gogoan genituen, txorkatila trukatzeko soil bat, beheko gogor bat nahikoak izan zitezkeen bertan behara galtzeko guztia, hau beti dago zintzilik eta ez du beste garrantzirik.

Mediterraneotik

Guzti hauei erantzuna eman nahian eta lehen nioen bezala, ekainaren 30an trenez Barcelonara joan ondoren, Port-Bouras daraman tren hartu eta eguardi aldean Mediterraneoko ur barea ikutzen geunden.

Port-Bou, itsas aldetik Kataluniako azken herria da, bertan dago Frantziako muga.

Hemendik eman genion hasiera arratsaldeko 2 etan, izugarriko beroa adiskide genuela.

Ez da nere asmoa bidearen nondik norakoa zehaztea, horretarako bai daude bai liburuak (geroxeago agertuko dudana laburpenarekin nahikoa dela uste dut) baina nahi nituzke bai ikutu bertako bitxikeri batzuk.

26 egunetan (guk pasa genituenak hain zuzen) badaude hamaika une ezberdin: neke aldi latzak eta ondoren atsedenaldi liluragarriak, bide galtzeen nahigabea beraurkitzearen pozak itotzen du; urdailaren ahuldade eta indar ezaren buru makurtua, paella onak jasoarazten du; ekaitzen zakardade basatiak, egun senti garbien lilurak ahanzten dituzte; eguzkiaren berotasun astunak duen zama etxe inguruko mendi ertza ikusteak arintzen duen bezala arri gorrietako ur ezaren egarria, alai eta biziz beterik datorren erreketako ur garbiek asetzen digute.

Hau da bi hitzetan Pirineoa udaran, kontraste izugarrien biltokia, bata besteari lotua dago, amaieran eta hala behar, gauz gehienak dituzu gogoan baina una ilunek azken batean une alaitsuen menpe geratzen dira eta hori da jarraitzeko indarren arrazo nagusia nere ustez.

Goraxeago aipaturikoari lotuz, deigarrienak bihurtu zitzaizkigun zenbait gogoeta datozkit burura.

Lehen egunean izan genuen beroak eta ur ezak, egun berean gau aldera izan zuen jarraipena, izan ere kamiseta gorria neramanen idizko baten eraso antzekoa jaso nuen, hasiera ona beraz. Bigarren egunean frantsez erdi Punk hauetakoak bidean topa genituen, nahiko jende majoa ziren hauek eta Fran-

tziari jarraituz Le Perthus herrian gazte bateri jana eman beharrean aurkitu ginan gure zama astunegia arintzeko asmoz. Hirugarren egunez izan genuen gauzik bitxiena. Las Illas inguruan gabiltzan (herrixka honetan mendizaleontzat babesleku polit polita dago) Salinasko baseliza topa nahian eta galdu ondoren, guri bide bat aurkitu eta jarraitu berari; halako batean aurrez aurre eta txaran erdi izkutatua baserri zahar bat azaldu zitzaigun, langa pasa genuen zerbait jakin nahi asmoz eta batpatean emakumezko gazte bat gure aurrean azaldu zen. 18. mendeko edo antzinako ola gizonek jantzen zuten tunika antzeko batez jantzita, sekulako jestoak eta oihuak eginez, bere esparrutik alde egiteko adieraziz, eroa zirudien, gu benetan arri eta makil, gizasemerik ikusi gabearen antza hartzen genion, eskerrak bai bere ondoren ama agertu zitzaigunez, honek baretu zuen alaba eta galbidea ere konpondu, erbia zirudien basoan ibiltzen, guri mesede galanta egin zigun bederen.

Hurrengo egunetan jarrai genuen momentu honetaz gogoratzen, oraindik ere gogoratzen bai dut.

Ondorengo 3-4 egunek ezer berririk ez zuten, uztailaren 5ean Font-Romeu herrira iritsi eta bertako kanpin politean lo, hori bai eltxoak milaka, hurrengo egunez lekuri politenetako bat pasa genuen, Boillouse aintzirak hain zuzen, Carlit (2.921 m.) tontorra zaindari dutela, leku honentzat hitz egokienak: ahal izan ezker bertara joatea.

Andorra bi egunetan igaro ondoren Pica de Estats barrenean geundela olandar hirukote jator batekin geure ingelesez dazkigun 3-4 hitzez egon ginan. Tabescan herrian bazkaldu eta Pirineo erdia zeharkatzen ari ziren beste bi Iruinarrekin solasaldi hona bota genuen. Hura zen azkar heldu helmugara, hitzez noski.

Gerora Noguera Pallaresa ibaiaren barrena Baqueiratik pasaaz Anetoren azpikaldara heldu ginan uztailaren 12an. Estós, Viadós eta Perdidosen oinetara, eguraldirik okerrenera hemen, izoztutako lakutik jeisterakoan! zer nolako ekaitza! eskerrak gertu zegoen Goriz.

Euskal Herrian

Hemendik Belaguara uste bezala, hemen senti genuen lehen aldiz amaieraren usaina, Gipuzkoar haur talde bat zebilen udaldia igarotzen bertan.

Uztailaren 21ean Zuberoako artzaiekien beraien euskera entzuteak Zuberoa osoa lainopean egonik gu geu mendi lepoan eguzki epeletan izateak birsortzen zigun indar berritze bat, egun beran Iratiko basoa amai ezina suerta zitzaigun eta bere magalean, erreka ondoan, pinudien azpian lotaratu behar, esna ondoren Orbaizetako armaola zaharra ikusi nahian abaitu, geroxeago Auritz-perri-ri iristeko.

Hemen eta Nafarroaren edertasuna destatuz geundela! a zer nolako ongi etorria eta harrera ezin hobea eskaini ziguten bertako bordan ikastoletako 100 bat haurrekin



zeunden Tolosar emakume batzuk. Gure eskerrik beroenak haueri berriro ere. Bada bai hor zehar hamaika jende jator.

Belaten pasa ondoren, azken gaua Artikutza gainera pasatzera heldu. Iadanik honuntza etor ezkerro Izarraitz eta inguruko mendien ertzak nabari genituen, ez dakit sekula hain atsegin bihurtu zaizkidan berauek ikustea, beste maila zen eta horrelaixe azaldu nahi dut. Bertan hego haize zakarrak udazkena zirudien, lo lekua batpatekoa, aurrean Larhun atzean Artikutzako ur potzua, eskubi aldera Aranaz eta ezkerrean Aiako arriak, gure azken zailtasuna.

Berau pasa eta Irundik barrena hain gogoko genuen Hondarribira, itsasoan busti aldi bat hartu eta ekintzak behar zuen neurrian gure ospakizun kuttuna burutzera, hain zuzen bertako jantoki batean bazkari egoki bat eskaini genion saritzat gorputz argaldiari eta poztuari. ¡Zer gutxiago!

Eta honenbestez hasieran nioen galderek bazuten osoko erantzuna.

Ezin hobeto joan zen guztia eguraldi ona gehien bat, jendearekin primerako harremanak, laguntza piloa jaso genuen, janari, bide erakuste e.a. Gorputzean 5-6 kg. gutxiago eta 26 egun gogoan izatekoak.

Nahiz eta jakin arren halamoduzko idatzia dela hau, berriketak alde batera lagata, norbait balego hau egin nahian, hemendik probatzera animatzen dut nik. Ez da beste munduko prestaerarik behar eta pertsonaren ahalmenak neurri zabalak ditu.

26 egun agian azkarregi da (guk 30 opor egun bakarrik genituen) egun gehiagorekin merezi duena da, ez zarete damutuko.

Ibilaldiaren laburpena

Ekainak

30. Port-Bou - Couloumettes, 8 ordu.

Uztailak

1. Couloumettes - Las Illas, 9,5 ordu.
2. Las Illas - El Corral (jantokia), 9 ordu.
3. El Corral - Lamanere - Col d'Aras, 10 ordu.
4. Col d'Aras - Ule de Ter, 7 ordu.
5. Ull de Ter - Eyne - Font Romeu, 10 ordu.
6. Font Romeu - Carlit - Puymorens - Pas de la Casa, 12 ordu.
7. Pas de la Casa - Ransol (Andorra), 6 ordu.
8. Ransol - Vall Ferrera, 11 ordu.
9. Vall Ferrera - Tabascan, 7 ordu.
10. Tabascan - Montgarri, 10,5 ordu.
11. Montgarri - Salarú - Restanca, 6 ordu.
12. Restanca - Renclusa, 11,5 ordu.
13. Renclusa - Estós, 5 ordu.
14. Estós - Viadós - Bielsa - Pineta, 13 ordu.
15. Pineta - Goriz, 7 ordu.
16. Goriz - Baysellance, 9 ordu.
17. Baysellance - Wallon - Sallent de Gallego, 11 ordu.
18. Sallent - Candanchu, 7,5 ordu.
19. Candanchu - Ibon de Estanés - Puerto Atxerito, 7,5 ordu.
20. Puerto Atxerito - Belagua, 6 ordu.
21. Belagua - Irati (Vg. de las Nieves), 9,5 ordu.
22. Irati - Espinal, 8,5 ordu.
23. Espinal - Ulzama, 10 ordu.
24. Ulzama - Ituren - Mendaur - Artikutza gaina, 10 ordu.
25. Artikutza - Aiako arriak - Hondarribi, 7 ordu.